



ELHUYAR
fundazioa

Elhuyar Hiztegiak Office 2003 eta 2007rako

Eskuliburua



1. Hasierakoak

Eskuliburu honetan, Word testu-prozesadorean integratutako Elhuyar hiztegiak kontsultatzeko modua azalduko dugu. Bertsio honetan integratutako hiztegiak Elhuyar EU/ES Hiztegi Txikia (Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco) eta Elhuyar EU/FR Hiztegi elebiduna (Euskara-Frantsesa/Français-Basque) dira.

Tresna honek euskarazko, gaztelaniazko edo frantsesezko hitz batek beste hizkuntzan (euskara → gaztelania, gaztelania → euskara, euskara → frantsesa, frantsesa → euskara) dituen itzulpenak edo ordainak eskaintzen dizkio erabiltzaileari.

Windows 2000/XP/Vista sistema eragilea instalatuta duten ordenagailuetan dabil tresna hau. Hiztegi-kontsulta Microsoft Word 2003 edo Microsoft Word 2007 aplikazioan integratzen da, Microsoft Word testu-prozesagailuaren *Erreferentzia* panelean hain zuzen, beste hizkuntzetako hiztegiak kontsulta daitezkeen modu berean.

2. Instalazioa

Elhuyar hiztegien plug-in-a testu-prozesadorean integratzeko, nahikoa da *ElhuyarHiztegiak.msi* fitxategian bi aldiz klik egitea eta, hortik aurrera, instalaziorako laguntzaileak ematen dituen argibideak jarraitzea.

1. irudia: Instalatzailearen lehen pantaila

3. Erabilera

Elhuyar hiztegietan kontsulta egiteko, *Erreferentzia* panelak pantailan ikusgai egon behar du. Panela aktibatzeko hiru modu daude:

1. Goiko menutik: *Tresnak* → *Hizkuntza* → *Itzuli...* aukeratuz
2. Hitzaren gainean eskuineko botoiari klik eginrez eta *Itzuli* aukeratuz
3. Hitzaren gainean *ALT* + *klik* eginez (*ALT* botoia sakatuta mantendu behar da klik egiten den bitartean).

Panela ikusgai dugularik, nahikoa da paneleko lehenengo kutxan kontsultatu nahi dugun hitza idaztea, ondoren iturburu-hizkuntza eta helburu-hizkuntza aukeratzea eta, azkenik, botoi berdea sakatzea azpian ordainak ikusteko.



Kontsultatu nahi dugun hitza euskarazkoa bada, *Hemendik* zerrendan *Euskara* eta *Hona* zerrendan *Gaztelania (Espainia-Moderno)* edo *Frantsesa (Frantzia)* aukeratu beharko dira (ikus 2. eta 3. irudiak). Gaztelaniazkoa bada, aldiz, *Hemendik* zerrendan *Gaztelania (Espainia-Moderno)* eta *Hona* zerrendan *Euskara*. Bestela, kontsultatu beharreko hitza frantsesezkoa bada, *Hemendik* zerrendan *Frantsesa (Frantzia)* eta *Hona* zerrendan *Euskara* hautatu behar dira.

Erreferentzia

Bilatu hau (jatorrizko instalazioaren hizkuntzan):
etxe

Erreferentzia-liburu guztiak

Atzera

Itzulpena

Itzuli hitz edo esaldi bat.
Hemendik: Euskara
Hona: Gaztelania (Espainia - Moderno)

Bidali dokumentua itzultzeko Internet bidez enkriptatu gabeko HTML formatuan

[Itzulpen-aukerak...](#)

Hiztegi elebiduna

etxe.

iz. 1. [eraikina] casa. *Zurezko etxea:* casa de madera. 2. [bizilekua] casa, vivienda, hogar. *Etxean bazkaltzen dut:* como en casa. *Etxeke lanak:* labores del hogar. 3. (hitz-elkarteetan bigarren osagai gisa) edificio, casa. *Kultura-etxea:* casa de cultura. *Zoro-etxea:* manicomio. 4. familia; linaje, casa. *Etxe oneko alaba:* hija de buena familia. *Valoisko etxea:* la casa de Valois. 5. [enpresa] casa comercial, empresa, firma. 6. (hitz-elkarteetan bigarren osagai gisa) (Teknol.) soporte, estructura; porta-. *Goide-etxea:* el soporte del arado. *Barauts-etxea:* portabrocas. **o etxe orratz.** rascacielos. **o etxea gobernatu.** gobernar/llevar/dirigir la casa.

etxeke.

iz. 1. (batez ere pl.) miembro de la familia, familiar; los de casa. 2. criado, -a, sirviente, -a. *Etxeke mutilak lagundu zion:* le ayudó el criado (de la casa). **o etxeke egin/bihurtu.** hacerse habitual/frecuente/familiar. *Guri hain etxeke bihurtu zaiguna:* lo que se nos ha hecho tan habitual.

etxekotu, etxeke(tu), etxekotzen.

da/du ad. 1. familiarizar(se); naturalizar(se); habituar(se), acostumar(se). **+du ad.** 2. [animalia] domesticar.

2. irudia: Kontsulta baten adibidea (euskara → gaztelania)



Erreferentzia

Bilatu hau (jatorrizko instalazioaren hizkuntzan):
etxeko

Erreferentzia-liburu guztiak

Atzera

Itzulpena

Itzuli hitz edo esaldi bat.

Hemendik: Euskara

Hona: Frantsesa (Frantzia)

Bidali dokumentua itzultzeko Internet bidez enkriptatu gabeko HTML formatuan

[Itzulpen-aukerak...](#)

Hiztegi elebiduna

etxe.

iz. 1. [*erakina*] maison, bâtiment. 2. [*bizilekua*] logis, habitation, demeure. 3. (hitz-elkarte baten bigarren osagai gisa) maison, édifice. 4. famille, extraction. 5. [*enpresa*] firme, société. 6. (hitz-elkarteen osagai gisa) (Teknol.) construction, système, ensemble. *Golde-etxea*: l'ensemble des pièces de la charrue. □ **etxe orratz**. gratte-ciel.

etxeko.

iz. (batez ere pl.) qui est de la maison/famille, familier. □ **etxeko egin/bihurtu**. devenir habituel, familial.

etxekotu, etxeko(tu), etxekotzen.

da/du ad. 1. (se) familiariser, (s')habituer à la maison, (s')apprivoiser. +du ad. 2. [*animakia*] apprivoiser.

3. irudia: Kontsulta baten adibidea (euskara → frantsesa)

Erreferentzia panela aktibatzeko 2. eta 3. moduak erabiliz gero, ez da beharrezkoa lehenengo kutxan kontsultatu nahi den hitza idaztea: automatikoki, kurtsorea dagoen hitza agertuko da kutxan.

Kontsultak gehiago azkartze aldera, testuaren hizkuntza ezarrita edukiz gero, ez da beharrezkoa iturburu-hizkuntza aukeratzea, automatikoki testuaren hizkuntza erabiliko baitu horretarako. Testuaren hizkuntza ezartzeko, ikus **3.1. Hizkuntza aukeratzea** atala. Jatorrizko hizkuntzak hiztegi bat baino gehiago instalaturik izanez gero, helburu-hizkuntza ongi dagoen begiratu behar da.

Dokumentu bat idazten denean, askotan gertatzen da testuan idatzitako hitza flexionatua egotea (etxeko, amaren,...) eta zuzenean hiztegi-sarrera ez izatea. Hori dela eta, kontsulta egin aurretik lematizazio-prozesua aplikatzen zaio testuko hitzari, eta bilaketak lemaren gainean egiten dira. Ikus **3.2 Lematizazioa** atala.



3.1 Hizkuntza-aukeratzea

Dokumentu berri baten hizkuntza aukeratzeko, **Tresnak** menuko **Hizkuntza** → **Ezarri hizkuntza** aukeran *Euskara, Gaztelania (Espainia - Modernoa)* edo *Frantsesa (Frantzia)* –dagokiona– aukeratu beharda.

Dagoeneko osatua dagoen testu baten edo hitz bakar baten gainean hizkuntza aukeratzeko, aipatutako urrats berak egin behar ditugu, testu osoa edo delako hitza hautaturik dugula.

3.2 Lematizazioa

Testuko hitz flexionatutik (*gizartea, gizartean...*) lema (*gizarte*) topatzeko prozesua da. Lematizazio-prozesua kontsulta egin aurretik aplikatzen da, testuan idatzitako hitzaren gainean edo zuzenean *Bilatu hau* kutxan idatzitako hitzaren gainean. Lema bakoitzeko bilaketa bat egin behar da hiztegian. Adibidez, *etxe* hitza kontsultatzen badugu, honek hiru lema bueltatuko dizkigu: *etxe*, *etxe* eta *etxekotu*. Hirurak hiztegi-sarrerak direnez, hiru sarreraren ordainak ikusiko ditugu *Erreferentzia* panelaren emaitzan (ikus 2. edo 3. irudia).

Lematizazio-prozesua bereziki interesgarria da euskararen kasuan, baina gaztelaniaren eta frantsesaren kasuan ere aplikatzen da. Esaterako, *casa* hitza kontsultatuz gero *casa* eta *casar* lemak agertuko zaizkigu (ikus 4. irudia), eta *change* hitza kontsultatuz gero, berriz, *change* eta *changer* lemak (ikus 5. irudia).



ELHUYAR
fundazioa

Erreferentzia

Bilatu hau (jatorrizko instalazioaren hizkuntzan):
casa

Erreferentzia-liburu guztiak

Atzera

Itzulpena

Itzuli hitz edo esaldi bat.
Hemendik: Gaztelania (Espainia - Modernoa)
Hona: Euskara

Bidali dokumentua itzultzeko Internet bidez enkriptatu gabeko HTML formatuan

[Itzulpen-aukerak...](#)

Hiztegi elebiduna


casa.

s.f. 1. [*edificio*] etxe, biziteixe; etxepe, teilape. 2. [*pisó*] etxebizitza, bizitza. 3. [*linaje*] etxe, leinu, dinastia. 4. [*familia*] etxe, familia, senitarte; etxeko. 5. (fig.) (Dep.) etxe. 6. (fig.) [*empresa*] etxe; (-)etxe (hitz-elkarteetan). *Casa discográfica*: diskoetxea. □ **casa consistorial**. udal-etxe, herriko etxe. || **casa cural**. apaizetxe, abade-etxe. || **casa de baños**. bainuetxe. || **casa de campo**. baseixe, landeixe. || **casa de cultura**. kultura-etxe. || **casa de huéspedes**. apopilo-etxe. || **casa de juntas**. batzar-etxe. || **casa de socorro**. (Med.) sorostetxe. || **casa solariega/solar**. oinetxe. || **casa torre**. dorretxe.

casar.

v.intr./v.pnrl./v.tr. 1. ezkondu, esposatu. + *v.intr./v.tr.* 2. (fig.) [*encajar*] ezkondu, uztartu; ahokatu, mihiztatu. + *v.intr.* 3. (fig.) [*corresponder*] bat etorri. *Casar con la realidad*: errealtatearekin bat etorri.

4. irudia: Kontsulta baten adibidea (gaztelania → euskara)



5. irudia: Kontsulta baten adibidea (frantsesa → euskara)

4. Desinstalazioa

Gure tresnaren funtzioak eta baliabideak Word testu-prozesadoretik kentzeko (menu-aukera berriak...), hauxe egin behar da:

- **Hasi** menutik **Ezarpenak** → **Kontrol-panela** hautatu
- **Gehitu/Kendu programak** aukera hautatu
- **Instalatu/Desinstalatu** fitxako zerrendan, egin klik bi aldiz “Elhuyar Hiztegiak” aukeran (ikus 6. irudia).

6. irudia. Programak gehitu edo kentzeko pantaila

Hori eginda, produktuak erabiltzen dituen hiztegi eta liburutegi guztiak gure sistematik ezabatu egingo dira.